

Noaua !!



Iñaki Errasti: “Ez genuen
geure maila eman Kontxan”

Enpresetako keak,
berriz ere bizilagunen kezka iturri



**ikasi euskara
eman izena**

ETUMETA AEK EUSKALTEGIA
Kale Nagusia, 45 behe. 20170 USURBIL

- AUTOIKASKUNTZA
- MINTZALAGUN
- EUSKALDUNTZE OROKORRAK
- HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN PRESTAKEJAK
(1.º, 2.º garren, 3.º garren edo EGA)

943 37 20 01

usurbil@ae.org



FRANTSES HIZKUNTZA klaseak Usurbilen!!!

FRANTSES KLASEAK, ZERO MAILATIK
HASTEKO TALDE BERRI BAT OSATZEN

ARI GARA,

MAILA HONETARAKO ORDUTEGIA:

ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN

KONTZEJU TXIKIN.

JENDEA IZENA EMATEN HASI DA!

ANIMA ZAITEZI!

609 75 47 99

ASTELEHEN ETA ASTEAZKENETAN

ZERBAIT GEHIAGO DAKITENETZAT

Irakaslea Hizkuntza eskola ofizialean eta
L'Alliance française (C2) diplomatua

Informazio gehiagorako: 609 75 47 99

**Zure sagardoa egiteko behar
duzun guztia daukagu!**



**ERRAUSKETARIK EZ
LURRIA BASERRIARRA HERRIA
BIZIRIK**

ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba
Ugarte Industrialdea 12, 48944 20170 Usurbil

Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba
alkartasuna@alkartasuna.com

Ugarte industrialdea 12

943 36 11 14

Albisteak iruditan!!

Maiz gertatzen omen da gainera...

Zubietako bidean egindako argazkia da. Artzabaleta inguruan, Zubietako eta Santuenea arteko errepidean, alegia. Antza denez, ez da horrelakorik gertatu den lehen aldia izan. Tarteka errepikatzen den irudia omen da.

Dirudienek, bide bazter guztia ez dago babestuta, eta bidea ezagutu gabe, maniobratzen hasi eta konturatu orduko, autoak zulo batean amaitu dezake. Argazkiko autoaren gidariari gertatu zaion legez.

Konponbide eske etorri da argazkia ekarri digun Zubietako bizilagun hau.



ZUBIETAN, ARTZABAleta INGURUAN EGINDAKO ARGAZKIA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordintatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Aitor Eleta, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietako, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alasne Begiristain, Denis Elortza, Garazi Iturralde, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Maddi Galbete, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KE ARTEKO EGUNAK ATXEGALDEN _____ **5. OR.**

LARUNBATEAN, ELKARTASUN EGUNA _____ **8. OR.**

SAN PRAIXKU, GEHIGARRI BEREZIA _____ **9. OR.**

KANTU LIBURUXKA, SALGAI _____ **17. OR.**

300 LASTERKARI BAXURDE KROSSEAN _____ **19. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BENTA TABERNA
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05



IMANOL UBEDA

Labordetaren motxila

Memoriaren Parkea zabaldu zen duela bi urte pasatxo Sartagudan. 36ko gerran, Francoren jarraitzaileek Nafarroan erail zituztenen omenez. 2008ko maiatzean, inaugurazio ekitaldi jendetsua egin zen. Herri bazkaria eta geroko kantaldian parte hartzeko deituak izan ginen.

Iritsi orduko, karpa handi batean zeuden bertarutakoak bazkaltzen. 4.000 pertsona inguru. Eta karpa ondoko kamerinoetan, Barricadako "El Drogas", Labordeta, Ruper Ordorika eta Fermin Valentzia kantariak. Gu bezala, noiz kantatzen hasiko zain.

Kantaldia hasi aurreko nerbioak nabariak ziren bertan. Horrelakoetan, denbora gutxian lana ahalik eta ondoen egin behar denez, ohiko jaialdi batean baino urduritasun gehiago izaten da. Baina hitz aspertuak nerbioak apaltzen lagundu ohi du.

Solaserako egokia behar du izan El Drogasek. Estrainekoz, kantatzeko baino, kontatzeko agindua zuen. Manifestu modukoa irakurri behar zuen. Barricadakoak lehen aldia zuela horrelako trantzean. Gainera, eskenatoki-ara atera behar zuen lehena bera zen. Izan ere, gauez Marearekin abestu behar zuen Iruñean, gonbidatu berezi

gisa. Beraz, egun okupatua izan zen Txantreako kantari eta baxujole mitikoarentzat.

Ruper Ordorikak, aldiz, 70eko kantaldien itxura hartu zion Sartagudako saio hari. Eta ordukoak ekarri zituen gogora.

El Drogas eta Ruper bezala, Labordeta ere solaskide atsegina zen. Ordurako, politikako lehen lerrotik erretiratuak zebilen. Baina kantuan, idazten eta ekitaldi ezberdinetan partehartzen jarraitzen zuen. Dagoeneko gaixotasuna atzemandak zioten. Eta naturaltasun osoz azaldu zigun. Gorabeherak gorabehera, umore ona mantentzen zuen. Kontu kontari ginela, baten batek "non daukazu motxila?" bota zion Labordetari, guztion algarara eraginez. Aurpegi serioa jarri zuen eta hala erantzun zuen: "hara, mundu guztiak txiste berdina egiten dit baina telebista saio harengatik jendeak oraindik asko estimatzen nau".

Eta hala zen. Karisma handia zuen. Sartagudan behintzat, bera izan zen izar nagusia. Kantaldian, denak poltsikoratu zituen. Bere kantuekin, bere azalpenekin.

Igandean, bere heriotzaren berri izan nuenean, Sartagudan ezagutu gineneko jaialdiaz akordatu nintzen.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Herritarren etxebizitza premiak aztertzeke inkesta burutuko du Udalak egunotan

Usurbildarren etxebizitza premia eta eskaria eta honen ezaugarriak aztertzeke inkesta burutuko du Udalak irailaren 27tik urriaren 15era. Telefono bidezko 450 elkarrizketa egingo dira, zoriz aukeratutako beste hainbeste etxebizitzetan. Inkestaren iraupena 12 minutu ingurukoa izango da, erabat anoni-

moa. Udaletik jakinarazi dutenez, "jakina da etxebizitzaren gaiak gurean duen garrantzia, hau lortzeko dagoen zailtasuna dela-eta. Horretaz kezkatutik, gure herritarren eskariak eta premiak ezaugarriturik jaso nahi ditugu, aurrera begira Udaletik bultzatuta daitezkeen ekimenetan kontuan hartu eta etxebizitza duin

baten aukera izateko eskubidea asetzeko. Arazo honi konponbidea eman asmoz etorkizunean abiaraziko diren ekimen berrietan ikerketa honek izan dezakeen garrantzia kontuan izanik, elkarrizketatuak izango diren pertsonen inkesta erantzutean ahalik eta gehien kolabora dezaten eskatzen diegu".

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: urriak 1. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 27.

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

iz Agirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izaglrreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Otar-Goxo
Elizkarguak
Zubiaurrenea, nº2
T 943 36 55 81
20170 Usurbil

Enpresetako keak hainbat herritarren kezka eragin du

Asko dira azken urteotan NOAUA!n jaso ditugun kexuak. Egun hauetan, bi jarraian: ke iluna islatzen duen argazki bat, batetik; eta hainbat auzotarrek adostu duten idatzia, bestetik. Biekin osatu dugu honako artikulua.

Ez da Ucinetako keak salatuz jaso dugun lehen kexua. Baina hala ere, konponbiderik ez duen arazoa dela dirudi. Egun hauetan, Atxegaldeko auzotar batzuk idatzi bat osatu dute eta inguruko enpresei zein instituzioei igorri diete. Keak eragiten dien ezinegonaren berri eman nahi diete. Pasa den astean, NOAUA!ra ere bidali zuten gutuna, euren kezka gainontzeko herritarrei jakinarazi nahian.

Honela deskribatzen dute gertutik bizi duten egoera: “Hainbat koloretako kea irteten da honako enpresetatik (Ucin, Aramendi eta Izaguirre). Askotan, gainera, kiratsa dakarte eta etxeetako leihoak ixtea beharrezko izaten da”.

IKERKETA ESKE BIZILAGUNAK

Gauetan, asteburuetan edota jai egunetan izaten dira nabarmenak keak

Bizilagun hauek jakinarazi dutenez, “hainbatetan, egunotan ere bai, Ingurumen Sailekoak gure auzoko haizearen konposaketa ikertzen dihardute”. Ez dakite hori Usurbilgo Udaltzaingoak jaso dituen hainbat kexuren ondorio ote den baina, bizilagun hauen esanetan, “askotan nabarmendu dugu ke horien irteera”. Ez dakite zein erretze edo zein prozesuren ondorio ote den, baina gau inguruetan izaten dela diote, asteburu eta jai egunetan.

“Udaltzaingoak adierazi digu badituztela jasotako kexuen ondorioz ke horien argazkiak. Atxegalden guztion ahotan dago keen eta ugaritzen ari diren minbizi egoeren artean badagoela harremana”, hala diote idatzian. Eta horregatik bizilagun talde batek egoera ikertzea eta behar



DUELA EGUN BATZUK, BIZILAGUN BATEK ARGAZKI BATZUK BIDALI ZIZKIGUN, KEAK ETA USAIAK SALATU ASMOZ.

diren konponbideak jartzea eskatu die idatziz, instituzioei eta inguruko enpresei.

Ikerketa eske

Usurbilgo alkatetzari ere honako eskaerak egin dizkiote: “gure kezkak bereganatzea; aurkeztu dugun idatzia-ri babesa eta laguntza ematea aipatutako enpresen aurrean; Udalak eta alkateak berak duten ahalmen legalarekin gai honi buruzko ikerketa sakondu eta osatzea; aipaturiko enpresak ke eta kiratsa ekiditera behartu, gure ustez izan litekeen osasun kaltea ezeztatzea”.

Ingurumen Sailari, ikerketak amaitzean analisi horien emaitzak auzotarrei

jakinaraztea: “Lortutako emaitza bizilagunontzat kaltegarria bada, iker dezala kutsadura horien jatorria eta enpresa horiek beharrezkoak diren neurriak jartzera derrigortzea”, hori eskatzen dute NOAUA!ra igorri duten gutunean.

Ucin, Aramendi eta Izaguirre enpresei, azkenik, “jardueran dituzten prozedurak azter ditzatela, eta saihestu ditzatela sortzen dituzten keetako gai eta usain kaltegarriak, usurbildarron osasunerako kutsakorrek direnak, bereziki Atxegaldeko auzotarrentzat. Administrazioek egin behar dituzten ikerketekin bat egitea”, emisio kaltegarriak eragin ez ditzaten.

Minbiziaren beldur

Pedro Ibarrenaren eskutik izan dugu bizilagun talde honek adostu duen idatziaren berri. Udalari, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari, Osakidetzari eta Ucin, Aramendi zein Izaguirre enpresei zuzendutako idatzi horretan aipatzen dutenez, “azken bi urteotan, 10 pertsona inguru hil dira, hainbat minbizi motaz eraginda. Gainera, dakigunez, beste lau auzokide ditugu minbizi jasaten”.

Honen aurrean, Osakidetzari eskatzen diote “aipatu dugun minbizi gaitza eta ondorioz hilketak ikertzea, ea

inguruko herri eta lurraldekoekin bat datozen, edo lekuko eta egoera berezi batekin zerikusia duen, kasu honetan Usurbil eta Atxegalderekin, bereziki. Usurbilen eta batez ere Atxegalden, zer egoera izan dugun azken urte hauetan minbiziarekin eta bere ondorioekin, zenbat diren hilak eta zenbat diren gaitzarekin, eta beste herrietako datuekin parekatzea, ondoren datu horiek guri errazteko”, dio gutunak.

Hemengo datuak ingurukoak baino larriagoak badira, auzotarrek ikerketa berezia egitea eskatu du auzotar talde honek, kasu berriak ekiditeko.

Atez atekoa, koste gutxien duen sistema

Datuekin argudiatu du Xabier Olanok, udaletxeko kontuhartzaileak

Hondakinen gaiak zeresan handia eman du azken urteotan. Zabortegeien amaiera, errauste-plantaren egitasmoa, atez ateko bilketa sistema... Ia eguneroko kontua bilakatu da hedabideetan. Honakoan, atez atekoak duen eragin ekonomikoan erreparatu dugu. Eta datu eske joan gara Xabier Olano udal kontuhartzailearengana.

NOAUA! Atez ateko sistema, udalen ekonomia itotzen duen bilketa-eredua dela esaten da. Dena den, Usurbilen behintzat hori ez dela horrela diozue Kontuhartzaitza udal zerbitzutik. Are gehiago, bost edukiontzien sistema eta ohiko bilketa sistema baino errentagarriagoa dela atez atekoa. Birziklatutakoarengatik jasotako diru sarrearen kopuruan dago gakoa, akaso?

Xabier Olano. Ez horretan bakarrik. Atez ateko bilketa sistemaren onura ekonomiko nagusiak bi dira. Batetik, birziklatutako papera, kartoia eta ontziak saltzean diru sarrera politak jasotzen dira (40.000 euro urteko Usurbilen) eta Ecoembes erakundearen konpentsazioetan beste 80.000 euro inguru urteko. Baina hori baino garrantzitsuagoa da tratamendu gastuak gutxitzea. Bilketa nahasian egiten bada, hondakin guztiak tratamendu koste bera dute (130 euro/tonako).

Atez ate bildutakoan errefusak bakarrik du koste altu hori, hondakin guztien % 20ak alegia. Hondakin organikoen tratamendu kostua askoz apalagoa da. Papera, kartoia, beira eta ontzi arinek ez dute tratamendu kosturik ia sortzen. Esan dezakegu azken hauek sarrerekin beraien gastuak berdintzen dituztela.

Inbertsioen amortizazioa

N. Atez ateko bilketari ekiteko, hasiera batean inbertsio handi bat egin behar izan zen, hori ere kontuan hartu duzue datu horiek plazaratzerakoan?

X. O. Noski baietz. Baina era zentzudunetan eta legezko amortizazio arauak jarraituz. Inbertsioak egiten direnean urte batzuetarako egiten dira. Inbertsioen etekina hurrengo urteetan jasotzen du gizar-



XABIER OLANO KONTUHARTZAILEAK EMAN DIZKIGU DATUEN XEHETASUNAK.

teak. Inbertsio bakoitzak bizi iraupen desberdina du eta horren arabera amortizatu behar da urte zehatz batzutan. Hori araututa dago. Ikuspegi ekonomikotik ulertezina eta onartezina da inbertsioen kostu osoa urte bakar bati leporatzea, norbaitek arinki egin duen bezala. Urte bakoitzari berari dagokion amortizazioa erantsi behar zaio, ez inbertsio osoa.

Catalunya, adibide

N. Ekonomiarri erreparatuta beti ere, Gipuzkoa osora hedatu daitekeen bilketa sistema al da atez atekoa? Esan nahi da, Usurbilek dituen baldintza demografiko-geografiko-soziologikoei esker da atez atekoa bideragarri, ala Gipuzkoako gainontzeko herrietan ere bideragarria litzateke atez atekoa?

X. O. Beharbada, ez naiz ni pertsonarik egokiena atez ateko sistemak eskatzen dituen baldintza demografiko, geografiko eta soziologikoei buruz hitz egiteko baina edozein sistema moldatu eta egokitu beharko da tokian tokiko errealitatera. Gure ingurura begiratu gero, atez ateko sistema ondo moldatu da Usurbil, Oiartzun edo Hernani bezalako herrietara. Catalunyan herri handiagotan ere ondo funtzionatu du eta Europara joz gero, Donostia baino hiri handiagotan erabiltzen bada, ondo egokitu delako izango da.

Usurbildarrek ez dute beste herrietan baino gehiago ordaintzen

NOAUA! Atez atekoa ezarri denetik, hondakinen kudeaketarengatik usurbildar batek Gipuzkoako beste herriar batek baino askoz gehiago ordaintzen al du?

Xabier Olano. Hori ez da egia. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira urtero Gipuzkoako herriarrek hondakinen kudeaketarengatik ordaindu behar dituzten zenbatekoak. Nik ikusi ditudan bezala, edozein herriarrek ikusi ditzake argitaratu diren azken datuak, 2010 urteari dagozkionak:

Donostiar batek 113,17 euro ordaintzen ditu urtean bere etxebizitzako hondakinak jaso eta kudeatzeagatik.

Oiartzunen 98,40 euro ordaintzen ditu etxebizitza bakoitzak.

Astigarragan 92,40 euro; Orion 88,80 euro; Hernanin 83,40 euro; Urnietan 79,08 euro.

Eta Usurbilen 76 euro ez badu autokonpostatzen. Autokonpostatzeko aukera eta ahalegina egiten badu, 45,60 euro besterik ez du ordaintzen.

Gaikako bilketaren ondorioz, hondakinen tratamendua merkeagoa da

NOAUA! Bost edukiontzien sistemaren alde egin dute Urnietan. Eta atez atekoarekin kritiko diren askok defendatzen duten proposamena da hori. Baina atez atekoa baino garestiagoa dela diote zuen datuek. Are gehiago, gastu eta sarrera arteko emaitzari erreparatuz, askoz garestiago litzateke bost edukiontzien sistema. Nola azaldu daiteke halako aldea?

Xabier Olano. Ahalik eta argien azaltzen saiatuko naiz. Bi gastu mota bereizi behar dira: bilketa eta tratamendua.

Bilketa gastuei dagokionean, antzeko gastuak dituzte bi sistemak. Bilketa bereziak egin behar dira hondakin mota desberdinentzat: organikoa batetik, papera eta kartoia, ontziak, beira etab. Atez atekoak pertsona gehiago eskatzen du. 5 edukiontzien sistemak berriz, kamioi eta edukiontzi gehiago behar du. Baraz beste, bilketa gastuak inguruan dabilta.

Hondakinen tratamendu gastuetan ordea diferentzia handiak daude. Herrian sortzen den hondakin organiko guztia atez ate biltzen bada, organiko guzti horren tratamendua merkeagoa da.

Aldiz, 5. edukiontziak ez du inongo herritan sortzen den organiko guztia biltzen. Borondatezkoa denez, herritarren % 18 edo %20ak besterik ez du egiten orain arte behintzat organikoa 5. edukiontzira eramateko ahalegin eran-

USURBIL	HONDAKIN KUDEAKETAREN KOSTE AZTERKETA		
GASTUAK	OHIKO SIST. 2010	5 EDUKIONTZI 2010	ATEZ ATE SIST. 2010
1.1.-Bilketa gastuak	325.000,00	420.000,00	455.206,74
1.1.1.- Pertsonal gastuak	0,00	0,00	247.985,28
1.1.2.- Beste gastu amurrak	0,00	0,00	104.024,00
1.1.3.- Bilketa kontrata gastuak: etxe + polig	290.000,00	380.000,00	0,00
1.1.4.- Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00
1.1.5.- Beste gastu orokorrak	0,00	0,00	31.646,46
1.1.6.- Amortizazio gastuak	35.000,00	40.000,00	71.551,00
1.2.-Tratamendu gastuak	228.544,49	222.071,12	181.881,37
1.2.1.- Pertsonal gastuak	0,00	0,00	0,00
1.2.2.- Beste gastu amurrak	0,00	0,00	0,00
1.2.3.- Tratatzeko kontrata gastuak: Tn x Tarifa			
Organikoa			
Sortutako organiko tonak	993,36	993,36	993,36
Gaika bildutako organiko tonak	0,00	198,67	993,36
Organikoa tratatzeko tarifa	97,9668	0,00	97,97
Organikoa tratatzekoaren kostua	0,00	19.463,26	97.316,30
Ontziak			
Sortutako ontzi tonak	206,48	206,48	206,48
Gaika bildutako ontzi tonak	144,54	144,54	206,48
Ontziak tratatzeko tarifa	0,00	0,00	0,00
Ontziak tratatzekoaren kostua	0,00	0,00	0,00
Papera eta kartoia			
Sortutako papera tonak	475,64	475,64	475,64
Gaika bildutako papera tonak	428,08	428,08	475,64
Papera tratatzeko tarifa	0,00	0,00	0,00
Papera tratatzekoaren kostua	0,00	0,00	0,00
Errefusa			
Sortutako errefusa tonak	647,76	1.551,96	647,76
Errefusaren tratatzeko tarifa	130,55	130,55	130,55
Errefusaren tratatzekoaren kostua	228.544,49	202.607,86	84.565,07
Beira			
Autokontpostatza			
Inausketak			
Boluminosoak			
Hondakin tonak guztira	2.323,24	2.323,24	2.323,24
Tratatze kostua tonako bidez beste	95,37	95,38	78,29
Bilketa + trat. gastuak guztira:	553.544,49	642.071,12	637.088,11
SARRERAK			
2.1.- Hondakin bilketa zeharzuaren tasa	250.000,00	250.000,00	250.000,00
2.2.- Papera eta kartoia: Ecosimbas + saltea	0,00	0,00	36.000,00
2.3.- Ontziak: Ecosimbas + saltea	0,00	0,00	87.000,00
2.4.- Organikoa saltea	0,00	0,00	0,00
Sarrerak guztira:	250.000,00	250.000,00	373.000,00
EMAITZA	-303.544,49	-392.071,12	-264.088,11

KONTUHARTZAILETZA BULEGOAN BERTAN EMANDAKO TAULA HONETAN IKUS

DAITEKE ATEZ ATEKOA DELA HIRU SISTEMEN ARTEAN KOSTE GUTXIEN DUENA.

tsia. Herritarren erdiak baino gehiagok errazkerira jotzen du eta hondakin guztiak nahasian botatzen ditu edozein edukiontzitara.

Herrian sortzen den organikoaren erdiak baino gehiagok tratamendu garestia jaso behar izaten du, aurrez ez delako bereizita bildu.

“Udal bakoitzak bere bidea egiteko aukera izan behar luke”

NOAUA! Udal gobernuan dagoen taldeak maiz eskatu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa. Honek oraindik gehiago arinduko luke Usurbilgo Udalak egiten duen ahalegin ekonomikoa?

Xabier Olano. Ez naiz babes berezia eskatzearen aldekoa. Nahikoa litzateke ekonomikoki ez zigortzea eta bakoitzari bere bidea egiten uztea, oztoporik jarri gabe. Lehen aipatu dudana bezala Diputazioak bultzatutako Kontsortzioak 130 euroko tasa kobratzen du tratatzen

duen tona bakoitzeko. Hondakin organikoak konpostatzea askoz merkeagoa da. Bada Euskal Herrian enpresa pribatu bat 60 eur oren truke hondakinak konpostatzen dituen. Gipuzkoan dagoen konpostatze planta bakarrak (Lapatxen Kontsortzioak kudeatzen duenak) 100 euro kobratzen ditu tonako. Eta Gipuzkoako udal guztiak behartu nahi ditu organikoa hara eramatera, monopolioaz baliatzeko. Ez zait zilegia iruditzen. Udal bakoitzak bere bidea egiteko aukera izan beharko luke.



ORAINGOZ HIRU DIRA ATEZ ATEKOA EGITEN DUTEN HERRIAK: HERNANI, OIARTZUN ETA USURBIL.

Ingemarreko langileak, lan errotazio eske

Lanik egin ezinik dauden Ingemarreko 75 langileek lan errotazioa eskatzeko elkarretaratzea burutu zuten enpresa aurrean, joan den irailaren 17an.

Langileen batzordetik gogorarazten dutenez, "hasiera batean, langabezian ginenok gutxienez errotazio batzuk izango genituela zioen enpresak". Baina ez da halakorik bete eta aipatu batzordearen hitzetan, "ez dugu 75 familiek une txar guztia jaterik nahi".

2009ko uztailan 220 langile inguru zituen Ingemarrek. Egun, 167, horietatik 129 bat ERE barruan, eta "75 kalean".

Egoera bideratzeko langileen batzordeak enpresako zuzendaritzarekin biltzeko saiakerak egin arren, enpresaren aldetik trabak baino ez dituztela jaso salatzen dute. "Gidoi bat markatuta dute eta gidoi hori jarraitzen ari dira. Okerrena da guk



LANGILEAK, PASA DEN OSTIRALEAN EGINDAKO ELKARRETARATZEAN.

ez dakigula zein den gidoi hori", salatzen du Ingemarreko langileen batzordeak.

Krisi egoera badela onartzen dute langileen batzordetik, ez ordea "inposatu diguten ERE-a". Enpresak egoera makillatu duela salatzen dute. Betidanik Usurbilgo enpresan egin dituzten lan asko Ingemarrek Galizian duen lantegira desbideratzen ari direla diote.

Eurak lanik egin ezinik dauden artean, kanpotik Ingemarrera langileak datozela.

Administrazio aldeko bidea jorratu dute, baina esperotako emaitzarik ez dute jaso. Horregatik, batzordetik, "herriari eskatzen diogu gurekin bat egin dezan". Urriaren 13an asanbladan bilduko dira berriz.

Larunbat honetan, Elkartasun Eguna

Usurbilen Nahi Ditugu taldeak aditza eman duenez, euskal presoek urte hasieran abiatu zuten borroka dinamika aurrera jarraitzen du. Honen harira, presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea egingo da ostiral honetan 20:00etan eta, larunbatean, Elkartasun Eguna.

Presoek eskubide minimo hauek errei-bindikatzen dituzte: zigorra beteta dutenak, baldintzapeko askatasunean egoteko eskubidea dutenak eta gaixotasun larriak dituztenak berehala kaleratzea; isolamendua eta bakartze politika amaitzea; dagozkien eskubideen jabe Euskal Herriratuak izatea; euren estatus politikoa aitortua izatea.

Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak adierazi duenez, "txandakako protesta honetan, Ramon Uribe eta Patxi Uranga herri-

tarrak ditugu borrokan une hauetan. Ramonek 16 urte daramatza espetxeratua eta, legearen arabera, baldintzapeko askatasunean egoteko eskubidea du. Ez zaio, haatik, onartzen eta egun Topaseko (Salamanca) espetxean dute preso.

Patxi, berriz, Valdemoron daukate iazko ekainean preso hartu zutenetik. Urte honetan modulo aldaketa etengabeak izan ditu eta bera ere, bakartua aurkitzen da une honetan".

Irailak 25 larunbata, Elkartasun Eguna

-Goizean mural pintaketa.

-Arratsaldeko 17:00etan frontoian, herri-olinpiadak.

-Gauko 23.00etan, presoek eskubideen aldeko kontzertuak Aginagako Eliza Zaharrean (Murder Pink, Deskontrol, Dj-ak). Sarrera 10 euro.



DESKONTROL TALDEKOAK ARITUKO DIRA ELKARTASUN EGUNEAN.

Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu, Aginagako presoek lagunak eta herriko koadrilak, udalaren laguntzarekin.

Herri-olinpiadetan preso bakoitzeko talde batek hartuko du parte. Joko hauek egingo dira: lokotxa bilketa, zaku lasterketa, koilara arraultzarekin, ahoan bildutako urarekin botila betetzea, sokatira eta aulkien jokoa. Sari moduan, preso usurbildarrek egindako lanak banatuko dira.


ARRANDEGIA PELLO
Puntapax Kalea, 7
TIF 36 21 64
USURBIL


MERTZERIA
943 36 82 06
Zubiaurrenea 3, baxua


Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

TXAPELDUN TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

N!!

gehigarru berezia
Sanpraixku Aginaga

10

MOTZ

4





Iñaki Errasti, arraunlaria

“Ez genuen maila eman Kontxan”

Bukatu berri dute denboraldia. Txapelketa askoren jabe eginda, baina preziatuena den bandera etxeratu gabe. Edozein kasutan, datorren denboraldiari begira, ilusioz. Hauxe Iñaki Errasti Kaikuko arraunlari aginagarriak egiten duen balorazioa, San Praixkuak hastear diren honetan. Oraindik halere badu beste hitzordu bat: Aginagako IV. Trainerila Txapelketa; etxekoekin batera aterako da.

NOAUA! Sailkapen proban aipatzen zenuen kazetariei, oso gustura ez zinela gelditu Kaikuk egindako lanarekin. Sentsazio hori gerora Kontxako Banderan ere islatu zen?

Iñaki Errasti. Ostegunean pasa zena ez zen kasualitate bat izan. Gero ikusi da agian ez garela une onenean ailegatu. Iaz nahi gabe ia ezer egin gabe, sailkapenean abantaila handia atera genion bigarren sailkatuari. Aurten ikusi da ez garela punturik onenean ailegatu eta uste dut iazko maila ez dugula erakutsi Kontxako Banderan. Guk huts egin dugu, beste-ei meriturik kendu gabe. Ez dugu geure maila eman Kontxan.

N. Zer desberdintasun azpimarratuko zenituzke iazko eta aurtengo denboraldiaren artean?

I. E. Arraunketan iaz oso erraz, ontzia oso solte joaten zen. Aurten, gehiago kostatzen zitzaigun. Alde horretatik arraunean hain gustura ez gara ibili. Fisikoki ere ez dakit une onenean geunden, azkenean faktore asko izan daitezke. 13-14 joaten gara eta zaila da baloratzea zergatik diren gauzak hala. Baina argi dago, iazko maila ez dugu eman.

N. Zeure ikuspuntutik egiguzu, Kontxako Banderako bi jardunaldien balorazioa.

I. E. Lehen igandean, guk txanda ondo irabazi genuen. Gero Urdaibaik ere bai bere txanda. Estropada txarra ere ez genuen egin, baina iruditzen zitzaigun ez guela desberdintasun handirik markatu itzulerako luzeran. Errematatzea falta izan zitzaigun. Bigarren igandera ailegatu ginenean, esperantzarekin ginen, gauzak ondo eginez gero hor aurrean ibiliko ginela. Baina ziabogara ailegatu ginenean,



KONTXAN GALDU BAZUTEN ERE, DENBORALDI ONA EGIN DUTELA USTE DU.

ikusi genuen tarterik ezin izan genuela markatu eta gure helburua kanpoaldera abantaila ateratzea zen. Baina eman eta eman eta ez genuen lortu. Ziaboga txarra eman genuen, eta besteek oso ona. Lehenengo olatuekin martxa egin zuten eta gero jada, erremolkea, atzetik. Erreakziorik ez genuen izan. Ez dakit gehiegi eman genuen kanpoaldera, baina horri buelta emateko gai ez ginen izan.

N. Denboraldia bukatu duzue beraz.

I. E. Bizkaiko eta Euskadiko txapel-dun izan gara; trainerutan, Bizkaia, Euskadi eta Espainiakoak irabazi ditugu; eta Kontxan, lehen igandean irabazi genuen, baina azkenean Bandera ez lortzea, beti esaten duguna, Kontxa hain da handia... Irabazitako guztia aldatuko nuke Kontxagatik. Baina bere balorea eman behar zaio lortutakoari, ez delako gauza erraza.

Kortaren inguruko polemika, “lekuz kanpo”

N. Kortaren inguruko polemika, zer modutan bizi izan duzue?

I. E. Niri iruditzen zait lekuz kanpo dagoela. Irabazi dutenak zoriundu nahi nituzke eta esan, guk ez dugu iazko maila eman. Zer gauza egin ditugun gaizki, horri begiratu behar diogu. Niretzat gertatutakoa lekuz kanpo dago. Halakoetan hobe izaten da isilik egotea, proba segururik ez baduzu behintzat. Urdaibain lagunak ditut, zoriundu nituen eta uste dut, garbi irabazi zigutela. Urdaibaiz gain, Oriok ere 21 segundo sartu zizkigun, San Juani abantailarik ez genion atera eta garbi dagoena da, guk gurea ez guela egin. Orain gai horietan sartzea alferrik da. Hobe da guk zer egin dugun gaizki aztertzea.



Datorren denboraldian Kaiku taldean jarraituko du

NOAUA! ACT-TKE liga nork irabaziko du?

Iñaki Errasti. Oriok igandean oso estropada ona egin zuen, baina zaila izango du. Bi puntu dira, edozer gauza gerta daiteke, jakinik gainera, azken estropada Portugaleten dela. Han kaleen zozketak zeresan handia du. Faborito Urdaibai, baina Oriok ere badu bi puntu kentzeko aukera. Igandean egin zuten estropada ikusita, motibatuak egongo dira. Faborito bat ematekotan Urdaibai emango nuke, baina Orio ere agian sorpresa bat emateko gai izango dela uste dut. Gero play off-ari begira, Zumaia dago hor, Camargo eta Santurtziren aurka. Camargo eta Santurtzik erakutsi dute, maila ona eman dute denboraldi guztian zehar, baina geratuko denetako bat Zumaia izango dela uste dut. Segituan geratu zen aukerarik gabe ia, play offari begira. Nik uste dut, ondo prestatzeko aukera izan duela.

N. Datorren denboraldian, Kaikun ikusiko zaitugu?

I. E. Hurrengo urtean han jarraitzeko hitz eginda dugu, berriz ere ilusio handiarekin. Aurten, Kontxak ederki jaitsi digu laino horretatik. Pixka bat lur hartzeko ondo etorriko zaigula uste dut.

N. Zaletu bat baino gehiago Usurbilen, zer esanik ez Aginagan. Asteotan nola sumatu dituzu?

I. E. Egia esan, eskertzekoa da. Denak kamisetak lortzen, animuak ematen... Azkenean, Kontxako Banderarena pena izan da, niretzat behintzat, ilusio handia nuen. Gehienbat Aginagako urteurren horrekin, Aginagan egon zen festarekin. Nire asmoa zen irabaziz gero, omenaldia egitea Aginagari. Horretan pentsatzen joan ginen, baina ezin izan da. Hemendik esker-tu guztiei. Ia hurrena, ospatzeko aukera dugun.



San Praixkuetan,

IV. Trainerila Txapelketan parte hartuko du Iñaki Errastik, Aginagako taldearekin

NOAUA! San Praixkutan trainerilla txapelketan parte hartuko duzu?

Iñaki Errasti. Urtero atera izan naiz, Aginagaren izenean. Festa polita izaten da. Iazkoan etorri ziren Kaikukoak lehen aldiz, eta aurten jada galdezka ari ziren, Aginagara etorri beharko zela. Jendea desiratzten dago. Batzuk esaten dute denboraldia amaitu dela, baina agian oraindik Aginagako estropada hau izango da azkenekoa.

Festa giroan, baina jada batzuk uste dut pixka bat serio hartzen hasi direla. Nik uste azkenean Aginaga eta Usurbilen arteko pikea ez dela, beste pike serio batzuk egongo dira. Jendea prestatuta joango da, hor galtzera inor ez da joaten. Ia festa giroa jarri eta ondo pasatzen dugun.

N. Prestatzen hasiak egongo zarete.

I. E. Ez dago prestaketarik. Azken momentura arte, Kaikukoek ez dakit zer egingo duten.

Aginagan oraindik ez dakit nortzuk aterako garen.

N. Badatoz San Praixkuak. Aginagarrei zer esan festen atarian?

I. E. Ondo pasatzeko festak aginagar guztiek. Egia esan, arraunagatik aukera handirik ez dut izaten bileretara joateko. Badakit hor ibiltzen den jendeak lan handia egiten duela, urtero itxurazko festak antolatzen dituztela.

Eskerrak eman festak antolatu dituzten guztiei, eta ondo pasa dezatela aginagar guztiek. Haserretu gabe ibili eta festa giro on bat egon dadila.



Kontuan hartzeko hitzorduak



Hasteko, pilota ikuskizunak

Irailaren 30ean hasiko dira festak Aginagan eta kirolariak izango dira lehen protagonistak. Arratsaldeko 18:00etatik hasita, emakume arteko partidak, ezinduen erakustaldia eta Aginagako VIII. Pala Txapelketako finala jokatu-ko dira (irudian, iazko finala jokatu zutenak).



Urriaren 8an, gaztetxoak nagusi

Haur eta gaztetxoek eguna izango da urriaren 8a. Goizetik joko ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute. Elkarrekin bazkaldu ahal izango dute eta, arratsaldez, puzgarriak, txokolate banaketa, buruhandiak... Beraz, egun ederra izango dute goizean goizetik.



Herritarren arteko herri kirolak

Urriaren 3an igandea, San Praixku egunaren bezperan, herritarren arteko herri kirol saioa egingo da arratsaldez. Ez hori bakarrik, herriko aizkolariak ere desafioan arituko dira. Beraz, herri kirol festa biribila izango da urriaren 3koa.



Urdin kolorea nagusi

1960. urtean Aginagak irabazi zuen Kontxako bandera. Jende ugari bildu zen duela bi aste antolatu zuten ospakizunean. Urdin kolorea zen nagusi. Eta festetan ere, aginagarriak urdinez irtetea animatu nahi dituzte antolatzaileek.

Angulas Mayo, s.l.

AGINAKO ANGULAK
BEREKO BIBEROAK



Toki Berri, z/g
Telf: 943 36 15 94
Faxa: 943 36 25 73
AGINAGA

ONDO PASA SAN PRAIXKUAK!



José María Larburu
Garraiatzailea

garraioak
larburu
gruarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA



943 36 17 35 · 656 791 277

TXAPARTEGI

harategia



bertako haragia

ondo pasa jaietan!

AGINAGA · 943 361 907

“EL ALMACEN DE AGINAGA”

GIPUZKOAKO LEHEN
ALTZARI FABRIKA

ALTZARIAK, SOFAK, KOLTZOIAK...

FABRIKAKO PREZIOAK!!!

*Mahaiak, aulkiak, logelak, sofa-ohak,
literak, sarrerako altzariak,
neurri eta kolore guztietako armairuak...*

ORDUTEGIA:

Astelehenetik Larunbatera (ostegunetan jai)

10:00-13:00 eta 16:30-19:30

IGANDEA: 11:00-14:00

Ondo pasa jaietan!

Errasti industrialdea (Aginaga sagardategiaren ondoan)
AGINAGA 943 36 93 59



Jaiak, egunez egun


Irailak 30 osteguna

18.00 Emakume Pilotari, ezin-
duen erakustaldia, Aginagako
VIII. Txapelketako Pala Finala.

Urriak 1 ostirala

18.00 Jaien hasiera, etxafero
eta buruhandiekin.

22.00 Aginagako VIII
Txapelketako esku pilota
finalak.



00.00 Kontzertua Eliza
Zaharrean: Odolaren Mintzoa,
Gaueko Itzalak, Trikihots.

Urriak 2 larunbata

OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

06.00 Oilasko biltzaileen
gosaria.

06.30 Oilasko biltzaileen irteera.

16.00 XXX. Mus Txapelketa
herrikoia (izen ematea 15:30).



00.00 Garabi taldea. Atsede-
naldian maleta karrera. Ondo-
ren Joxparekin dantzaldia.

Urriak 3 igandea

09.00 Tiro platoa.

17.30 Herritarren arteko herri
kirolak eta herriko aizkolariak.

Urriak 4 astelehena

SAN PRAIXKU EGUNA

11.00 Meza nagusia bertsola-
riez alaitua.

Ondoren, herriko jubilatuen-
tzako hamaiketako
Aginagako Sagardotegian.

17.00 Herri kirol
profesionalak:
Harrijasotzen, Goenatxo.
Aizkoran, Etxebeste-
Txapartegi eta Olasagasti-
Saralegi.



Ondoren, Sardin eta Sagardo
dastaketa bikaina.
Aldi berean, XXVIII. Toka
Txapelketa.

Urriak 8 ostirala

UMEEN EGUNA

10.00 Haurren jokoen hasiera.

13.00 Umeentzat bazkaria.

Bazkalostean, jokoen jarraipe-
na eta sari banaketa.

16.30 Puzgarri ezberdinak:
handiak, ertainak....

Jarraian, txokolate banaketa
eta buruhandiak.

20.00 Triki-bertsu poteoa.

21.00 Bertsu afaria Eliza
Zaharrean.

Ondoren, 3Gabe2rekin dan-
tza egiteko aukera.

Urriak 9 larunbata

17.00 Aginagako

IV. Trainerila txapelketa.

Agiña, San Juan, Zarautz,
Kaiku, Orio, Hondarribia, San
Pedro eta sorpresa bat!

Jarraian txarangaz alaiturik
erriyotik frontoira.

Bertan, herri antzerkia.

00.00 Abiba diskojaia.


Jarraian Dj Larra Eliza
Zaharrean.

Urriak 10 igandea

12.00 Bea eta Rodriarekin
ahots eta piano emanaldia
Elizan.

14.00 Herri bazkaria.

Jarraian, Laiotz taldearekin
erromeria.



ETXEESTE Jatetxea

Eguneko
bazkariak

ondo ibili jaietan !!

 943 36 27 40



Ondo pasa
San Praxiskuak!!

Mutiozabal Etxea, 17 zenb.
20170 AGINAGA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 361 081
Faxa: 943 365 704
www.atxega.com
atxega@atxega.com

Aginaga

Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginasagardotegia.com





A. Bruño e Hijos S.L.

ondo pasa Sanpraixkutan!

ANGULAK ETA ITSASKIAK

Menu ezberdinetako
aurrekontuak egiten ditugu.

Egin ezazu zure eskaera telefonoz:

☎ 943 37 27 88 Usurbil

Legarde Kaleko Zumartegi.



Ganbak, langostinoak, karraketak,
nekora, lanpernak, buia, zentoltoa,
mixera, kamaroiak, olagarroa, ardo txuria

65€

ANGULAS
MANTEROLA



*San Praixku jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu
aginagar guztioi!*

Telf: 943 36 07 77 Faxe: 943 36 35 85
Aginaga

Kantu Taldea: “Herri ekimen honek kantuen suspertze positiboa eragin du Euskal Herrian”

2009. urtea hastearekin batera abiatu zen Usurbilgo Euskal Kantu Taldea. Bilguneko eragile Mikel Usabiagak lerrootan gogorarazten duen moduan, hainbat helbururekin; euskal kantuen ikasi, bultzatu eta gozatu asmoz, eta horren inguruko giroa sortu nahian, kantu-jira, jaialdi edota kantu afarien bidez. Taldea, Euskal Herriko Kantu zaleen mugimenduko partaidean bihurtu da. Ikasturte berrirako berrikuntza kalean da jada; kantu-liburuxka.

NOAUA! Nolako izan da euskal kantuen liburuxka batean biltzeko egin duzuen lana eta zer irizpideren arabera hautatu dituzue?

Mikel Usabiaga. Liburuxka baten premia begi-bistakoa da. Gaur arte, gutxi gorabehera, asteroko entseguetarako, 200 bat kanta ikasi edo erreparasatu ditugu. Liburuxkan 189 kantuen letrak daude. Kantu bilduma aukeratzeko, besteak beste, irizpide hauei jarraitu diegu, batzuetan zehazki horixe egin ez badugu ere: oso entzunak izatea, askotan kantatuak; abesteko zailtasun handirik ez izatea; kantu zaleen mugimenduan sarritan abesten direnak; gure historiaren zenbait guneetan aparteko esanahia eta garrantzia izan dutenak; Euskal Herriko abeslariak eta talde musikalak ezagutzeko, bakoitzaren bildumatik abestiren bat aukeratzea. Abestien artean, garai batekoak, betikoak eta duela urte gutxiakoak, betiko bihurtu daitezkeenak... bildu ditugu.

MIKEL USABIAGA

“Liburuxka hau kantu zalea den edonork eskuratzea gustatuko litzaiguke”

N. Kantu-liburuxka zer modutan erabiltzea nahi duzue?

